

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilbao Ekintza, E.P.E.L.**

Iragarkia, Bilbao Ekintza, E.P.E.L.ena, hutsik dagoen Enpresa-sustapenerako Teknikariaren lanpostu bat, nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin eta B Teknikariaren kategoriari (A2) dagokion ordainsaria duena betetzeko, behin bakarrik eta lehiaketa sistemaren bidez deitutako ez ohiko egonkortze hautaketa-prozesuan lanpostugaiak behin betiko onartzeari eta baztertzeari eta epaimahaia izendatzeari buruzkoa.

Bilbao Ekintza EPELeke lehendakariak honako Ebazpen hau jaulki du:

Lehenengoa: Amaitu da Bilbao Ekintzako 2022ko Egonkortze Lan-Eskaintza Publikoaren deialdiari dagozkion, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premia neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritako lehiaketaren bidez jabetzan betetzeko ez ohiko egonkortze-prozesuan onartu eta baztertu diren pertsonen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak egiteko eta akatsak zuzentzeko epea, Bilbao Ekintzako plantillan hutsik dauden lanpostuak lan-kontratuko langile finko moduan kontratatzeko.

— Enpresa-sustapenerako teknikariaren lanpostu bat, nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin eta B teknikariaren kategoriari (A2) dagokion ordainsaria duena. ESP. BE 2022-EST-0001.

Aipatu den deialdirako hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin-betiko zerrenda onartzea xedatzen da. Zerrenda hori ebazpen honen eranskin gisa ematen da.

Bigarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-betiko eta eranskin gisa ematen den zerrenda. Baztertutakoen kasuan, baztertzeko arrazoia zehaztuko da.

Hirugarrena: Epaimahaia izendatzea. Deialdiaren Oinarri Orokorretan ezarritakoaren arabera, hautaketa-prozesua epaitzeko ardura duen epaimahaia honela osatu da:

— Presidentea:

- Alejandro Taramona Bereciartua jauna, Bilbao Ekintzako Zerbitzu Orokorren Arloko Arduraduna eta, ordezkoko gisa, José María Escolástico Sánchez jauna, Bilboko Udaleko Udal Etxebizitzan Zuzendariorde Operatiboa eta Juridikoa.

— Kideak:

- María Jesús del Blanco Patino andrea, Bilbao Ekintzako Enpresa eta Enplegu arloko Zuzendaria, eta Eva María Salcedo Pérez de Obanos andrea, Bilbao Ekintzako Hiri Garapen (Invest in Bilbao) Unitateko Arduraduna, eta ordezkoko gisa, Cristina Laucirica Azcona andrea, Bilbao Ekintzako Ekonomia eta Finantza Teknikaria eta María Natalia Saiz González andrea, Bilbao Ekintzako Ekonomia eta Finantza Teknikaria.

— Idazkari 1:

- José Ignacio Risueño Serrano jauna, Bilbao Ekintzako Lege eta Giza Baliabideen Arduraduna, eta ordezkoko gisa, Rosa Ana Yurrebaso Sestafe andrea, Bilboko Udaleko Zerbitzu orokorretako Zuzendariordea.

Laugarrena: Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenaren aurka, berraztertze aukerako errekurtsioa aurkez liteke, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren aurrean, edo, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu daiteke zuzenean, bi hilabeteko epean, zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bilbon, 2023ko maiatzaren 23a.—Bilbao Ekintza EPELeke presidentea, Xabier Ochandiano Martínez



I. ERANSKINA

EXPTE. BE 2022-EST-0001

ENPRESA SUSTAPENENKO TENIKARIA
BARNE-SUSTAPENENKO TXANDA/ TXANDA IREKIA

Onartuen behin-betiko zerrenda

NAN *	Izen-abizenak
*066*8**	BIKANDI IRAZABAL, CRISTINA
*89***88	BUENO MAEZTU, YOLANDA
***8*615	EIZMENDI SASIAIN, OIHANA
*895***6	MEIZOSO GOMEZ, NATALIA
*899***9	LARRAMENDI ALUTIZ, ANDER
*891***6	GARCIA GARCIA, ITZIAR

* NAN: Nortasun agiria. 4 digitu ezkututzen dira.

Baztertuen behin-betiko zerrenda

NAN *	Izen-abizenak	Arrazoia
***3*607	CRUZ RODRIGUEZ, ITZIAR	02
***0*683	DELGADO AZCONA, BLANCA	01

Baztertearen gakoak

- 01 Eskatzen den titulua ez edukitzea.
- 02 Eskatutako hizkuntza-eskakizunik ez edukitzea.

* NAN: Nortasun agiria. 4 digitu ezkututzen dira.